



ibilbidea txakolinaren itzalpean

7,5 Km - 2 ordu

fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amalera: **Axpe - Udaletxea**
- Ibilbide mota: **Zirkularra**
- Ibilbideraren luzera: **7,5 km**
- Metatutako malda +: **50 m**
- Denbora (g.g.b.): **2 ordu**


Gomendioak:

- Honako noranzko hau gomendatzen da: Axpe-Sukarrieta-San Antonio-Axpe-San Kristobal-Altamira-San Bartolome-Axpe.

- Beste abiapuntu posible batzuk: Sukarrieta, Itsabegi, Madariaga-San Kristobal eta Altamira.

- Madariaga Dorretxea. Bisitaldiak: 94 687 04 02.

Ibilbidearen perfla:



Erraz egiteko moduko ibilbidea Busturiako auzo nagusietan barrena. Sukarrietarekin konektatua. Interes handiko guneak aurkituko ditugu bidean, hala nola Madariaga Dorretxea, Sukarrietako udalekuak, Txatxarramendiko uhartea edo San Kristobal hareatza, Urdaibaiko paduren oinetan.

Busturiako udalerrian interes handiko hainbat elementu biltzen dira, eta ibilbide biribil eroso honi esker izango dugu horietako asko ezagutzeko aukera.

Axpetik abiatuta, Sukarrietarako bidea hartuko dugu, Errege Bide zaharraren tarte enkatxatu batean barrena. Bide horrek Gernika eta Bermeo lotzen zituen Busturiaren parean, eta Bizkaiko bide-ondarearen adierazgarri balioetsua da.

Gune pribilegiatu batean egonik, estuarioko bista ezin hobekak eskaintzen ditu Sukarrietak. Txatxarramendi uhartea eta Toña eta San Antonio hondartza nabarmentzen dira. Azken horretara iristeko, 1925az geroritik diharduten udaleku historikoen ondotik pasatuko gara.

Axperako bidean, hondartzen ordez landazabal atlantikoa aurkituko dugu Urkitza eremuan, paduraren ikuspegi eder-ederraz gozatzeko begiratoki aparta.

Axpetik abiatuta, Madariaga Dorretxera-Ekoetxea Urdaibaira igotzen da bidezidorra, ondoren San Kristobal auzora jaitsi eta Altamirarantz jarraitzeko.

San Bartolome eta Altamira auzoen artean, parrapeko bide zaharrez eta haien zutabe bitxiex gozatzeko aukera izango dugu, antzina txakolina egiteko mahatsondoak landatzeko erabiltzen zirenak.

Atxapuntako tontor nabarmenaren oinetan elementu interesgarri ugari aurki ditzakegu, hala nola San Pedro koba, Aingerubideko hariztia edo Andra Mari eliza historikoa.

informazioa



Oficinas de turismo:

- Gernika-Lumo..... 94 625 58 92
- Bermeo 94 617 91 54
- Mundaka 94 617 72 01

Transporte público:

- Bizkaibus 94 612 55 55
- Euskotren 94 433 33 33



Promotorea:
Urdaibaiko Biosfera
Erreserbako Patronatua
Madariaga dorretxea
 94 403 23 60

madariaga dorretxea

Madariaga dorretxea eskualdeko leinu nagusietako baten jabetza izan zen. Gotortutako eraikina da, eta tontor pribilegiatu baten gainean altxatzen da. Ekoetxea-Urdaibaiko zentroa eta Urdaibaiko Biosferako Erreserbaren patronatuaren egoitza da gaur egun.

Erreserbatu zure bisita!



Errege bideko galtza



Busturiako landazabala eta padura

parrapeko bideak

Busturiako auzo-bide askotan harrizko pilastra txikiak aurkitzen ditugu. Busturiako XVII.-XIX. mendeetako txakolingintzaren adierazgarri dira. San Bartolomen, Amunategiko upeltegirako sarreran berreskuratutako pilastrak nabarmentzen dira.

Gogoratu

- Ondo prestatu txangoa
- Utzi baketan inguruko animaliak
- Gogoratu prismaticoak hartzea
- Ez hartu lorerik
- Utzi atatak aurkitu dituzun moduan
- Ez bota zaborrik



Urdaibaiko ibilbide sarea

PR®-BI 160



Altamira



Homologatutako ibilbideak. Sinbologia.

PR®			
	Zidorraren jarraipena	Norabide aldaketa	Okerreko norabidea
	Mendiko ibilbide laburra (PR®)		
	Mendiko ibilbide luzea (GR®)		
	Interesguneetara desbiderapenak		

urdaibaiko padurak



Euskal kostaldearen itsasertzeko hezegune nagusia da, Okaren estuarioan marearteko eremuan agertzen dena. Beren kontserbazio-egoera eta giro-dibertsitatea direla eta, hainbat hegazti-espezie urtar erakartzen dituzte haien migrazio-bidaia luzeetan. 600 hektareako zabalera dauka, gutxi gorabehera, eta gazitasun-maila eta urpean gelditzeko aukerak aldatzen dira toki batetik bestera, landaredi-unitate konplexu bezain askotarikoak sortzen direlarik. Gogoan hartu prismaikoak hartu behar dituzula!

- | | |
|------------------------|---------------------|
| Abiapuntua | Natura 2000 sarea |
| Aparkalekua | Ekoetxea Urdaibai |
| Eliza | Natura interesgunea |
| Ermita | Iturria |
| Dorretxea | Atsedengunea |
| Koba | Garraio publikoa |
| Gailurra | Ostataua |
| Ikuspegi panoramikoa | Taberna- jatetxea |
| Txakoli mahats- parrak | Hondartza |
| Hegaztien behaketa | Galtzada |